



10. ATALA: ANTROPOLOGOAK

KARTA DIDAKTIKOA

LABURPENA

	Jarduerak	Titulua	Helburua	Baliabideak
Hasiera fasea	1. Jarduera	Zer dakigu antropologiaren inguruan?	Antropologiaren inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta	I.eranskina: Antzinako tresnak
	2. Jarduera	Bai, esan? Antropologoak	Antropologia lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta	Ordenagailua Proiektorea Bideopodkasta
Garapen fasea	3. Jarduera	Atzera begira	Antzinatik gaur egunera erabiltzen ditugun tresnek izandako bilakaeraz jabetzea	I.eranskina: Antzinako tresnak.
	4. Jarduera	Etorkizuneko tresna	Etorkizunean erabilgarria izango den tresna diseinatzea	Paperak, errotulagaiak, berrerabiltzeko materiala (plastikozko botilak, tapak, iogur potoak...)
Ekoizpen fasea	5. Jarduera	Erakusketa prestatu	Aurreko jardueran sortutako tresnekin museoa prestatzea	
	6. Jarduera	Gure erakusketa	Museoa muntatzea eta bisitariak jasotzeko prest uztea	

* Karta didaktiko hau proposamen bat da. Irakasle bakoitzak bere ikasgelara zein ikasleen interesetara moldatzeko aukera du

MUINA

Helburuak

- Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako antropologia aitzakitzat hartuta, antropologiaren lanbidera hurbiltzeko, antropolo paperean jarri eta tresna zein ohituren azterketa bat egiteaz gain gure etorkizuneko tresna sortu eta erakusketa bat prestatuko dugu.
- Espezifikoak
 - Antropologia zer den ulertzea.
 - Egoera desberdinen aurrean sortzen diren emozioak lantzea.
 - Gure ohiturak aztertzea.
 - Etorkizuneko tresna bat diseinatzea.
 - Ikastetxeko erakusketa prestatu.
 - Ardurak betetzea.
 - Helburuak lortzeko taldean lan egitea.

Azken xedea edo ekoizpena

- Azken xedea etorkizunean erabilgarria izan daitekeen tresna bat diseinatu eta erakusketa bat prestatzea izango da.

Ikasle taldea

- Bigarren ziklorako pentsatuta dagoen karta didaktikoa da, printzipioz. Hala ere, karta didaktikoaren amaieran gainontzeko zikloetara egokitzeke proposamenak biltzen dira.

KARTA DIDAKTIKOA

Lehenengo fasea

1. jarduera → Zer dakigu musikarien inguruan?

- Helburua: Antropologiaren inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.
- Gelara sartutakoan lehen arropa lisatzeko erabiltzen zen plantxaren argazki bat erakutsiko diegu (eranskinetan aurkituko duzu irudia). Asanbladan eserita, argazkian ikusten den tresnaren iinguruko elkarrizketa bat hasiko dugu. Hona hemen elkarrizketa hasteko galdera gidari batzuk: Zer da objektu hau? Zertarako erabiltzen zen? Nola funtzionatzen du? Ikusi duzue noizbait horrelako tresnaren bat?...

Irakaslearentzat oharra:

- Jarduera hau aurrezagutzak pizteko besterik ez da. Informazio asko ez dute izango, eta gure ardura izango da elkarrizketa bideratzea pistak emanaz. Hala ere, interesgarria da ezjakintasun hori ere balioan jartzea eta horren inguruan hausnartzea. Askotan ez baitugu pentsatu ere egiten gaur egun erabiltzen ditugun tresnak nondik datozen, nolakoak ziren, nola erabiltzen ziren.... Ezjakintasun hori gehiago jakiteko irrika pizteko erabiliko dugu.

2. jarduera → “Bai, esan? Musikaria”

- Helburua: Antropologia lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.
- Bai, esan? Bideopodkasta ikusiko dugu. Lehenengo jardueran landutakoarekin eta bideopodkastean jasotako informazioarekin lanbidean gehiago murgilduko gara. Jasotako informazioan ikasleei interesa piztu dien gaiak oinarri hartuta ikasleak hausnarketara bideratuko ditugu eta lanbidearen inguruko ondorioak ateratzera bultzatuko ditugu

Irakaslearentzako oharra:

- Elkarrizketa horretan irakasleak hainbat input eman beharko ditu helburu komun batzuetara iristeko. Atera behar diren ondorioetako batzuk hauek dira:
 - **Antropologia.** Antropologia gizakia aztertzen duen zientzia da. Antropologiak, gizakia bere osotasunean aztertzen du, hau da, ze testuingurutan bizi den, non bizi den, nola bizi den, zer jaten duen, ze tresna erabiltzen duten, taldea nola antolatzen duen...
 - **Gizakia izaki soziala da.** Gizakia izaki soziala da eta horrela ulertu behar da. Gizakia beste gizaki batzuekin bizi da, hau da, taldean bizi da. Horrek eragina du bakoitzarengan.
 - **Antropologoak.** Antropologo batek 3 ezaugarri nagusi izan behar ditu: jakinmiña, kritikotasuna eta pazientzia. Jakinmiñaren bitartez gauza berriak ikertu eta aztertuko ditu. Kritikotasunak egiten ditugun gauzak zergatik eta zertarako egiten ditugun pentsatzen lagunduko digu. Pazientzia beharrezkoa da antropologo batentzako ditugun galderen erantzunak ez direlako segituan lortuko, horren atzetik ikerketa lan handia egin behar da.

KARTA DIDAKTIKOA

Garapen fasea

3. jarduera → Atzera begira

- Helburua: Antzinatik gaur egunera erabiltzen ditugun tresnek izandako bilakaeraz jabetzea.
- Irakasleak antzinako tresnen argazkiak banatuko dizkie ikasleei. Ikasleek zer den eta zertarako erabiltzen zen asmatu beharko dute.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko dituzu jarduera honetan erabiltzeko irudiak.

4. jarduera → Etorkizuneko tresna

- Helburua: Etorkizunean erabilgarria izango den tresna diseinatzea.
- Jarduera honetan, ikasleak taldeka jarriko dira eta etorkizunean erabilgarria izango den tresna diseinatu beharko dute. Behin diseinua egindakoan, materiala bildu eta egindako diseinuari forma eman beharko diote.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzu etorkizuneko tresnaren diseinua bideratzeko txantiloia.

KARTA DIDAKTIKOA

Ekoizpen fasea

5. jarduera → Erakusketa prestatu

- Helburua: Aurreko jardueran sortutako tresnekin museoaren prestaketa.
- Jarduera honetan aurreko jardueretan landutakoari forma emango diogu. Horretarako, aurretik sortutako tresnak bildu eta erakusketa nola antolatu pentsatuko dugu denen artean.

6. jarduera → Gure erakusketa

- Helburua: Museoaren muntaketa eta bisitariak jasotzeko prestaketa.
- Jarduera honetan denok batera emango diote museoari forma. Argazkiak zintzilikatuko dituzte, gela jantziko dute... finean, gela erakusketa bihurtuko dute. Bitartean aurkezpenaren eguna ere finkatuko dute eta horren deialdia zabalduko dute. Kasu honetan beste eskolako kide batzuei gonbidapena luzatzea proposatzen da, gonbidatu nahi diren taldeen geletara bisita eginez.
- Aurkezpenaren egunean ikasleek harrera egingo diete etortzen diren guztiei eta behin dena hasteko moduan dagoenean, ikasleak euren sorkuntzak aurkezten hasiko dira.
- Aurkezpena bukatzen denean, museoaren egun batzuetan horrela utziko dugu, nahi duenak bisita egiteko aukera izan dezan.




Karta didaktikoa beste maila batzuetara egokitzeko proposamena

- Karta didaktiko hau bigarren ziklorako prestatuta dagoen arren, beste zikloetara egokitzeko aukera dago. Ziklo baxuagoetarako irakasleak emango duen laguntza eta ikasleei emango dizkieten baliabideak handiagoak izango dira. Adibidez, 6.jarduera egiteko irakasleak abesti baten letra banatuko dizkiete ikasleei. Kantu horretako letra desordenatuta egongo da eta ikasleek taldeka abestiko hitzak ordenatu beharko dituzte abestira erreala lortzeko. Ziklo altuagoetan berriz, sortutako abestia ikasgelara mugatu beharrean, guraso edo eskolako gainontzeko ikasle zein irakasleentzako kontzertu bat antolatzea bideratu daiteke saioa. Kontzertuan sortutako abestia abesteaz gain, ikasleen gustuko abestiak bersionatu daitezke.

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak





I. Antzinako tresnak

<p>Plantxa</p>	
<p>Labana</p>	
<p>Kriseilua (linterna)</p>	
<p>Josteko makina</p>	

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

I. Antzinako tresnak

<p>Aizkora</p>	
<p>Erlojua</p>	
<p>Irratia</p>	
<p>Kalkulagailua</p>	

© EITB MEDIA

